BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

BERRIATUKO UDALEKO JABETZEKOA DEN MENDIBARREN PILOTALEKUKO TABERNA ZERBITZUAREN EMAKIDA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea Berriatuko Udaleko jabetzakoa den Mendibarren pilotalekuko tabernaren zerbitzua ematea da.

2.- ZERBITZUAREN HELBURUAK

Zerbitzuaren helburu orokorra Berriatuko herritarrei eta gainontzeko balizko erabiltzaileei ostalaritza zerbitzua eskaintzea da.

3.- ZERBITZUAREN USTIAKETA

Zerbitzua urte guztian zehar emango da, dagozkion oporraldietan salbu.

Gutxienez ondorengo zerbitzuak eskainiko beharko dira:

Irekiera ordutik bazkal ordu bitartean, ogitartekoak eta bertan prestatutako pintxoak eskaini beharko dira.

Afaltzeko, gutxienez, plater konbinatuak eta ogitartekoak eskainiko dira.

Esleipendunak tabernako lokalak eta tresnak behar bezala zaindu, errespetatu eta errespetarazi beharko ditu.

Zerbitzu honen emakidadunak tabernari dagozkion guneen garbiketa lanak egin behar ditu eta arreta berezia jarriko du janariak edo edariak manipulatu edo zerbitzatu behar diren eremuetan eta komunetan, garbiketaren maiztasunari eta kalitateari dagokionez. Terrazaren gunea eta tabernaren sarrera eta irteerak ere garbitu beharko ditu. Udalak astean behin garbituko ditu harmailak, komunak eta aldagela.

4.- INSTALAZIOAK, ALTZARIAK ETA TRESNAK:

Esleipendunak kontzesioaren xedeko taberna-kafetegiaren gunean dauden ondasun higigarriak erabili ahal izango ditu.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

Instalazioak zaintzea eta mantentzea esleipendunaren kargura izango dira, eta hark bere kontura egin beharko ditu beharrezko diren konponketak eta lanak.

Erabilera arrunt eta arduratsuarengatik, altzariak edo instalazioak hondatzen baldin badira, udalaren kontura izango da altzari eta instalazio berriak erostea.

Horretarako, esleipendunak eskaera egin beharko dio Udalari eta erabilera eta mantendu egokia eman duela egiaztatu beharko du. Altzari edota instalazio berria erosteko udal arkitekto tekniko aholkulariaren txostena derrigorrezkoa izango da eta bertan, berria erostea egokiagoa dela justifikatu beharko da.

Zerbitzua ematen hasi aurretik esleipendunaren esku jartzen diren ekipamendu, instalazio, altzari eta gainerako tresnen inbentarioa dagokion aktan jasoko da. Bertan egoeraren berri emango da eta bi alderdien adostasuna beharko du.

Halaber, kontratua amaitzean edo hausten denean, akta jasoko da, eta enpresa esleipenduna behartuta dago zerbitzua ematen hasi zenean bere esku jarri ziren ondasunak egoera onean uztera edo berriak jartzera.

Bestela, Udalak esleipendunak jarritako bermea erabiliko du ondasunak edota berriak erosteko.

Kontratu honetako bermearen epemugari dagokionean, bi hilabeteko epearen barruan erantzun beharko dio esleipendunak ondasunak egoera onean uzteko edo berriak jartzeko daukan betebeharrari.

Tabernan hobetzeko edo aldatzeko esku-hartzeak egiteko (adibidez, dekorazioa, argiteria, pintura, altzariak, kanpo-errotulazioa, etab.) Berriatuko Udalaren oniritzia beharko du.

Instalazio guztiak, beren hobekuntza eta osagarriekin, Berriatuko Udalari itzuliko zaizkio emakida amaitutakoan.

5.- DATAK, ORDUTEGIAK ETA PRESTAZIOAK ALDATZEA, COVID-19ARI ERREFERENTEA

COVID-19a edo haren hedapena geldiarazteko hartzen diren segurtasun-neurrien edo gerora sortutako beste inguruabar batzuen ondorioz, zerbitzuen prestazioa

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

aldatu egin daiteke, bai datetan, bai ordutegietan, bai kontratuan esleitutako jardueretan.

Arestian aipatutako aldaketak emanez gero, kanonari dagokion zati proportzionala bueltatuko da.

Kontratuak irauten duen bitartean COVID-19 ez hedatzeko segurtasun-neurriak betetzen jarraitu behar izanez gero, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu COVID-19a prebenitzeko ekintza guztiak bere eginkizunean, instalazioen eta langileen zuzeneko xede direnak. Udalak, unean-unean ezartzen dituen jarraibideak bete beharko ditu.

6.- EMAKIDADUNAREN EGINKIZUNAK

Emakidadunaren eginkizunak izango dira:

- Berriatuko Mendibarren pilotalekuan kokatzen den taberna, bere osotasunean erabiltzea, lokala ematen zaion egunean inbentariatuko diren udal jabetzako altzari eta tresneria barne dela.
- Tabernaren kanpo aldean aulkiak eta mahaiak ipintzea -udan edo emakidadunak egoki ikusten duen urteko sasoian- aurretik Berriatuko Udalarekin adostuta leku publikoaren erabilera.
- Taberna gutxienez, ostiral, larunbat, domekan, jaiegunean edo jai bezperan irekitzea, beti ere Berriatuko Udalak aurkakoa baimentzen ez badu. Udalak aurkakoa eskatzen ez badu, Mendibarren pilotalekuan ikuskizunen bat baldin badago, taberna ere irekita egon beharko du.
- Errentan hartutako tabernaren negozioa zuzen eroatea, dedikazio osoz.
- Argindarraren kontsumoa ordaintzea, telefonoarena, udal zerbitzuei dagozkien prezio publiko eta arielena, eta tabernaren esplotazioari dagozkien gainontzeko gastuena.
- Negozioa esplotatzea zergapetzen duen edozein motako zergen eta haren esplotaziorako behar diren baimen egoki eta arauzkoen gastuak ordaintzea.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

- Emakidan hartutako lokalak eta bertako instalazio guztiak egoera eta kontserbazio onean mantentzea; errentan hartutako elementu guztiak (margotzea, argi eta ur instalakuntzak, ate, leiho, altzari, sukalde, tresna, etab…) mantentzea, konpontzea.
- Elementu guztiak itzuli beharko jakoz udalari ustiaketaren hasieran aurkitzen ziran egoera berberean.
- Lokala eta ingurua garbitasun, apaindura eta egoera txukunean zaintzea.
- Lokalaren erabilera, inola ere, ezingo da aldatu.
- Ingurumenarenganako errespetuz jokatu beharko du emakidadunak. Hortaz hondakinak sailkatzeko Berriatuko Udalak eskura jarritako zerbitzua erabiliko du, hondakin organikoarena barne.
- Emakidadunak hartzen duenak ez ditu onartuko jarrera homofobo eta sexistarik berau kartel baten bidez argi azalduz.
- Mota hauetako lokalentzako agintaritza eskudunak erabakita dituen zabaltze eta ixte ordutegia errespetatu eta betetzea.
- Oporraldiaren epea (urtean gehienez 30 egun natural) udalari jakinaraztea.
- Ahaleginak egin beharko dira Udalaren jabetzakoak diren Mendibarren Frontoia eta Zentrala Taberna aldi berean itxita ez egoteko. Hau koordinatzeko Udalak esleipendun biekin bilerak deituko ditu.
- Jokabide ona eta moralarekiko arauak betetzea babestea.
- Berriatuko Udalak adierazitako kontu eta tokian, hilero errenta ordaintzea.
- Legeriaren ondorio guztietarako, batez ere gertatu daitekeen betebehar eta erantzukizunei dagokionez, emakidaduna negozioaren esplotazioaren titular bakar legez agertu eta arituko da. Izaera hori eta Berriatuko Udalarekiko guztizko banatze juridikoa adierazi beharko du, eta azken hau ezingo da agertu behartuta emakidadunaren egiteengatik. Honegatik ba, emakidadunak udal tabernaren esplotaziorako hartutako enplegatu, menpeko edo kontratatuak beren ardurapeko eta kontura izango dira, eta inoiz ere ezingo dira hartu udal behargin legez.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

- Idatziz jasotzen da emakidaren amaieran emakidadunaren zerbitzuan aurkitzen den pertsonal guztiak berarekin batera itxi beharko dituela udal zerbitzu eta instalazioak. Udalak beharginen gainean ez du izango ez betebeharrik ez erantzukizunik, eta dagokionean, emakidadunaren ardurapekoa bakarrik izango dira dagozkien indemnizazioak eta kitapenak ordaintzea.
- Lanarekiko eta industriarekiko araudia eta aseguru sozialekiko indarreko araudi guztia betetzea emakidadunaren kontuko eta ardurapeko bakarrik izango da.
- Emakidadunaren kontuko eta ardurapeko bakarrik izango dira hornitzaileekin dituan zorrak ordaintzea, eta, orokorrean, edozelako erantzukizunak (zigorrak, itunaz kanpoko erruen erantzukizunak, etab...), eta Berriatuko Udalari ez zuzenean ez zeharka ezingo zaio eskatu negozioaren esplotaziotik sortutako ezelako erantzukizunik.
- Emakidan hartutako lokaletan edozelako obra egiteko baimena eskatu beharko zaio Berriatuko Udalari, beronen idatzizko baimena aurretiaz beharko delarik. Emakidadunak egingo dituen obrak, edozelakoak, negozioaren lokalei atxikita geratuko dira eta Berriatuko Udalaren jabetzapera pasatuko dira emakidaren kontratua amaitzen denean, ezelako diru-kopururik ordaindu barik. Berriatuko Udala ez dago behartuta ezelako obrarik egiten, edozelakoa dela. Hala ere, garrantzi handiko obrak baldin badira, Udalarekin adostu ahal izango da obra horien finantzazioa nola gauzatu.
- Emakidaduna behartuta egongo da egingo den errentamendu kontratua erakusten eta emakidaduna dela adierazten emakidan hartutako negozioa dela eta edozelako bahikuntza edo traba gertatuz gero, argi eta garbi agertuz kontratuaren izatea edozein traba diligentzian. Berau ahalik eta arinen udalari jakinarazi beharko dio, honek trabak jasan duen ondasunez dituen eskubideak baliatu ahal izateko. Honi dagokionez, epai mailako ekintza batek sortu ditzaken gastu guztiak errenteroaren kontura joango dira.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

- Erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu beharko du eraikuntzan eta instalazioetan sortu daitezken kalteak estaltzeko eta baita hirugarrenen aurrean erantzuteko ere. Honen gutxieneko estaldura 300.000 eurokoa izango da.
- Emakidadunak bere gain hartuko ditu emakidak iraun bitartean negozioaren esplotazioa dela eta sortutako eta ordaindu gabeko zergak, isunak, zigorrak, ordainketak eta beste edozelako zamak.
- Berriatuko Udalak onartutako animaliak izan eta babesteko ordenantza arautzailearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, debekatuta dagoenez animaliak sartzea janariak saldu eta manipulatzen diren lokaletan, emakidadunaren ardura izango da tabernan arau hori betetzea eta, ondorioz, tabernan txakurrak sartzen ez lagatzea.
- Emakidadunak, bere aldetik, epea bukatu aurretik kontratua amaitzea erabakitzen badu, bi hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko deutso Berriatuko Udalari, idatziz.

7.- EUSKARA

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Azaroaren 19ko 179/2019 dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, 4. ataleko 36. artikuluan jasotzen du Euskadiko toki-entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituztela, batetik herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak eta zerbitzuak eta bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza ofizialtasunaren erregularizazioa betetzeko.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen du, enpresa esleipendunaren langileek zuzeneko harremana izango dutelako zerbitzu jasole euskaldunekin. Administrazioari dagokio zerbitzu jasoleen hizkuntza eskubideak bermatzea. Horrenbestez, administrazioak bermatu behar du enpresa esleipendunak zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko gaitasuna baduela.

Hizkuntza baldintza hauek kontratuaren funtsezko betebehar izaera dute, eta horiek urratzeak kontratua bertan behera uztea Sektore Publikoko Kontratuaren Legeari jarraituz.

a) Euskara gaitasunari buruz.

Enpresa esleipendunak herritarrekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatzen dituen langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan egiteko, eta esleipena egingo bada, nahitaez egiaztatu beharko dute barran eta mahaietan bezeroak artatuko dituenak Europako Erreferentzia Markoaren B2 maila ahozkoan edo baliokidea.

Kontratua esleitzea proposatzen den enpresako langileek kontratazio honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatua ez badute, mailaketa-probak egingo dizkie Udalak. Azterketak Udalak zehaztutako egunean, orduan eta lekuan egingo dira.

Euskara gaitasuna egiaztatzeko egingo den txostena egin arte ezingo du Kontratazio Mahaiak kontratazioan aurrera egin. Kontratua esleitzea proposatzen den enpresak zerbitzu honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatzen ez badu, ezin izango da esleipenduna izan. Horrelakorik gertatuz gero, Udalak lehiaketaren zerrendan 2. geratu den lizitatzailearen euskara gaitasuna baloratuko du. Eta horrela hurrenez hurren. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago enpresa esleipendunak langileren bat aldatuz gero edo

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Langile aldaketa egiten den guztietan enpresak Udalari jakinaraziko dizkio langile berriaren izen-abizenak eta horrek egiaztatutako euskara maila. Enpresak Udalaren aldeko txostena beharko du langile berria lanean hasi aurretik.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz:

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, hurrengo baldintzak bete beharko dira:

1) Hizkuntza paisaia:

Zerbitzua ematean enpresa esleipendunak jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko dira ondorengo kasu hauetan:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.
- Oso zabalduak dauden hitzetan (musika eskola, kultur etxea ...).Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.
- Musika eta telebista jartzen badira, ezinbestekoa izango da musika eta telebista euskaraz tartekatzea.

2) Zerbitzu jasoleekin erabiliko den hizkuntzari buruz.

- Herritar euskaldunekiko ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan...) eta idatzizkoa (menua, karta, oharrak, abisuak, ordutegiak...) euskaraz izango da.
- Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
- Herritar erdaldunekiko idatzizko harremanean, euskarari emango zaio lehentasuna.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

3) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz.

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Ondorioz, nahitaezkoa izango da enpresa esleipendunak Udalarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izatea. Eta Udalak jarraipena egingo dio behin zerbitzua esleituta.

c) Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz:

Udalak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Hizkuntza baldintza horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake. Sektore Publikoko Legearen 192. artikuluari jarraituz. Behin eta berriz urratzeak, berriz, kontratua bertan behera uztea ekar lezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluari jarraituz.

8.- BALORAZIORAKO IRIZPIDEAK

Honako kontratu hau izapide arruntaren eta irekiaren bidez esleituko da.
Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabiliko diren irizpideak honako hauek dira:

- **PREZIOA:** 30 puntu arte.

Honako formula erabiliko da eskaintza ekonomikoa baloratzeko:

$$B = \frac{\text{baloratu behar den eskaintza}}{\text{eskaintza onenaren prezioa}} \text{ x } 30$$

- **USTIAKETA PROIEKTUA:** 0-20 puntu.

Alderdi hauek balioetsiko dira:

a) Antolaketa (gehienez 10puntu)
- Tabernaren antolaketa eta ordutegia. Gehienez 5puntu.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

-Instalazioen garbiketari dagokionez plegu teknikoen 5. puntuan zehazten diren derrigor egin beharreko lanen antolaketa, gehienez 5 puntu.

b) Menu eskaintza: Lizitatzaileek eskaintzen dituzten produktu eta jakiak.. Gehienez 5 puntu.

c) Produktuen jatorria: Kontuan hartuko da menuak egiteko produktu jangarriak non erosten diren. (Gehienez 5 puntu).

- **GAITASUN PROFESIONALA:** 0-30 puntu.

a) IKASKETA TITULUAK (10 puntura arte).

- Sukaldaritzan edo errestaurazioko arloko unibertsitate tituluak. 5,00 puntu.
- Lanbide-hastapeneko ikastegietan egindako ikasketen goi mailakoa titulazio ofiziala. 4,00 puntu.
- Lanbide-hastapeneko ikastegietan egindako ikasketen erdi mailako Sukaldaritza edo errestaurazio prestakuntza titulazio ofiziala. Eta -Sukaldaritza edo errestaurazioko 3. mailako Gaitasun ziurtagiriek 3,00 puntu.
- Sukaldaritza edo errestaurazioko 1 eta 2. mailako Gaitasun ziurtagiriek. 2,00 puntu.
- Erakunde publiko edo ofizialek emandako edo homologatutako 25 ordutik gorako Sukaldaritza edo errestaurazio prestakuntza jarduera bakoitzarengatik, 0,30 puntu.

b) LANBIDE ESPERIENTZIA (20 puntura arte).

- 8,00 puntu arte ostalaritza establezimenduetan egindako kudeaketa lanengatik (taberna eta kafetegia edo antzeko kategoria). 3,00 puntu lan egindako urte oso bakoitzarengatik.
- 4,00 puntu arte langileek ostalaritza establezimenduetan egindako zerbitzari, sukaldari, tabernari edo antzeko lanengatik (taberna eta kafetegia edo antzeko kategoria). 2,00 puntu lan egindako urte oso bakoitzarengatik.

BERRIATUKO UDALA
Herriko plaza, 1
48710 BERRIATUA
Tf. 94 613 70 30 Faxa: 94 613 70 27
Posta e.: alkatea@berriatua.org

Baldintza agiri honetako 15.3.b) artikuluan azaltzen den kaudimen tekniko eta profesionala bermatzeko behar den gutxienezko urtebeteko esperientzia ez da kontuan hartuko baloraketa egiteko garaian.

- **EGOERA PERTSONALA.- 0-20 puntu.**

Esleipendunaren edo zerbitzua prestatzeko hark kontratatuko duen pertsonaren gaineko informazioa aurkeztu beharko da bere egoera pertsonala baloratu ahal izateko.

ENPLEGU EGOERA (10 puntura arte):

Honela banatuta:

6 hilabete arteko langabezia – 5,00 puntu.

6 hilabete eta urtebete arteko langabezia - 7,50 puntu.

Urtebete baino gehiago langabezian – 10,00 puntu.

ERROLDAREN ARABERA (10 puntura arte):

Berriatuan erroldatuta- 10,00 puntu.

Eskualdean erroldatuta - 5,00 puntu.